

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 449

*2223/2015 EBAZPENA, abenduaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Juan Carlos Fariñas Pan jauna Araba Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendari kargutik kentzen duena.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 7ko 933/1993 Ebazpenaren bidez (uztailaren 26ko EHAA, 196. zk.), Juan Carlos Fariñas Pan jauna Araba Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2015eko abenduaren 28ko Akordioaren bidez Araba Eskualdea Zerbitzu Erakundea kendu egiten da.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, zuzendaritza nagusi honek hauxe

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Juan Carlos Fariñas Pan jauna Araba Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendari kargutik kentzea eta egindako zerbitzuak eskertzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2015eko abenduaren 31tik aurrera sartuko da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Araba Eskualdeari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordezari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 29a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.